



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO APIRILAREN 1EKO BILERAREN AKTA.

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohizkoa.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2019.04.01.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia.

Bertaratuak:
Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan Maria Gonzalez Burguete jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:
Mentxu Peña Lizarazu and.
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

Idazkaria:
M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.- Azkeneko aktaren onespena.
- 2.- 2018ko kontuak: aldeko txostena.
- 3.- 2019ko aurrekontuaren aldaketa: hasierako onespena.
- 4.-Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetarako mahaia osatzeko aukeraketa.
- 5.- Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.
Puntu hau hurrengo bileran onartzeko utzi da.

2.- 2018KO KONTUAK: ALDEKO TXOSTENA.
Puntu hau hurrengo bileran onartzeko utzi da.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

3.- 2019KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO OPNESPENA.

Puntu hau hurrengo bileran onartzeko utzi da.

4.-DIPUTATUEN KONGRESURAKO ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIA OSATZEKO AUKERAKETA.

2018ko apirilaren 28an izanen diren Diputatu Kongresurako eta Senatutarako hauteskundeak direla eta, mahaikideak hautatu behar dira.

Indarrean dagoen Hauteskunde Erregimen Orokorri buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoren adierazten diren hautesleak izan dira izendatuak zehazten diren karguetarako:

-TITULARRAK:

- Mahaiburua: Xabier Iturria Iparraguirre jn.
- 1. Mahaikidea: Edurne Iparraguirre Alzugaray and.
- 2. Mahaikidea: Julen Baleztena Iruretagoyena jn.

-ORDEZKOAK:

- Mahaiburuaren 1. ordezkoa: Mikel Leiza Echeverria jn.
- Mahaiburuaren 2. ordezkoa: Tania Indakoetxea Lukanbio and.
- 1. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Mikel Carricaburu Taberna jn.
- 1. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Sandra Iturria Tarazona and.
- 2. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Nekane Maya Almandoz and.
- 2. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Joxe Xabier Gonzalez Lukanbio jn..

5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bilera geroztik emandako ebazpenen berri eman du: 2019ko 41. ebazpenetik 48. ebazpena arte.

6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoan izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

7.- ISIDRO ECHEVERRIA ALZURI JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik Isidro Echeverria Alzuri jaunak aurkeztutako eskaera, Meaka alderdian dauden zuhaitzen (akaziak eta haritz amerikanoak) aprobetxamendua egiteko (matarrasa), 5. poligonoko 732. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

1) Isidro Echeverria Alzuri jaunari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

8.- CANDIDO APECECHEA LUCAMBIO JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik Candido Apecechea Lucambio jaunak aurkeztutako eskaera, Alkatxuri alderdian dauden zuhaitzen (pinu insignis) aprobetxamendua egiteko (matarrasa), 1. poligonoko 75. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Candido Apecechea Lucambio jaunari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

Bertzerik gabe, eguerdiko 12:30ak izanik, bilera amaitutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.